

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizen 45 urtetik gorako enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko udal laguntza ekonomikoen 2025eko ekitaldiko deialdiaren oinarriak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2025eko apirilaren 16an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko ekitaldian Vitoria-Gasteizen 45 urtetik gorako enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko deialdi publikoa eta oinarriak.

Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo behar dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Erabaki honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitezke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, alde zuzenetik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitezke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hila-beteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berriaz edo ustez ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren berriazko oinarri arautzaileen publikotasunaren inguruan araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

Arau-esparrua

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak, bertan aurreikusitakoaz gain, honako hauen arabera arautuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua), eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra, zeinaren helburua baita Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozedura arautuko duten oinarri orokorrak ezartzea. Ordenantza horri 2023ko apirilaren 21ean eman zitzaion hasierako onespina, eta 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen.

1. oinarria. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza-ildo

Laguntza hauek indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan (2025-2027) aurreikusten dira, zeina 2025eko urtarrilaren 17an onetsi baitzuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, eta 2025eko otsailaren 21ean aldatu.

Planak 08/06/V01 fitxaren barruan kokatzen ditu laguntza horiek: Enpleguan egonkortasuna sustatzeko laguntzak.

Ildo horren arabera, kalitateko enplegua sortzen laguntzea dute helburu laguntza horiek. Era berean, eraginkortasunean ahalik eta irismen handiena lortzeko, laguntzak izaera orokorrekoak dira, sektore guztiei bideratuak.

Laguntzen bidez sustapenerako helburu espezifiko hauek lortu nahi dira:

– Vitoria-Gasteizko udalerrian kontratazio mugagabea eta enpleguaren egonkortasuna sustatzea, aldi baterako kontratuak —lanaldi osokoak zein partzialekoak— mugagabe bihurtuta, gizarte-arloko politika arduratsuak aplikatuz Vitoria-Gasteiz inklusiboagoa izan dadin eta guztiontzako bizi-kalitate hobea esakini dezan.

– Tokiko ekoizpen-sare lehiakorra bultzatzea, enpresa txikietan eraginez.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

• Vitoria-Gasteizko udalerrian —elkarren arteko lehia baliatuz— lanaldi osoko nahiz partzialerako kontratazio mugagabea eta enplegu-egonkortasuna sustatzera zuzendutako laguntza ekonomikoak ematea du xede deialdi honek.

• Vitoria-Gasteizko udalerriko lantegietan 45 urte edo gehiago duten pertsonak zituzten aldi baterako kontratuak lanaldi osoko edo gutxienez ehuneko 50eko lanaldi partzialeko kontratu mugagabe bihurtzera zuzenduta daude laguntzak.

• Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

2.1. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak.

45 urte eta gehiago duten pertsonen aldi baterako kontratuak lanaldi osoko edo gutxienez ehuneko 50eko lanaldi partzialeko kontratu mugagabe bihurtzeko laguntzak.

Enpresa edo entitate bakoitzeko gehienez aldi baterako hiru kontratu mugagabe bihurtzeko laguntzak emango dira, betiere ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

2024ko irailaren 16tik aurrera mugagabe bihurtutako aldi baterako kontratuengatik jaso ahalko da dirulaguntza, eta gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den arte, 2025eko irailaren 15ean (biak barne).

Diruz lagun daitezkeen ekintza horien ondorioz sortutako kontratu mugagabea 12 hilabetez mantendu beharko da, deialdi honen 12.8 oinarrian xedatutakoari jarraituz.

2.2. Ez dira diruz lagunduko.

Eskabidearen zio den kontratua formalizatu aurreko hamabi hilabeteetan enpresa/entitate berarekin lan-harreman mugagabe bat bukatu duten pertsonen aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzea. Paragrafo honetan xedatutakoa aplikagarria izango da baldin eta langileak aurretiaz lan-loturarik badu enpresaren titulartasunaren ondorengotzatik edo forma juridikoaren aldaketatik sortutako enpresa edo entitateekin, Langileen Estatutuaren Legearen 44. artikulua ildotik.

Enpresaburuen ezkontideen, ondorengoen edo bigarren mailara arteko —hori barne— odol-edo ezkontza-ahaidetasuna duten senideen —edo horien parekoen, izatezko bikoteen kasuan— aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzea; edo enpresen kontrola duten, zuzendaritza-karguetan diharduten nahiz administrazio-organoetako kide / entitate direnenak.

Enpresa edo entitateko zuzendaritza-karguetan diharduten edo administrazio-organoetako kide direnen kontratuak mugagabe bihurtzea.

Laguntza eskatzen duten sozietateetan partaidetzak dituzten edo kontratazioaren aurreko urtean izan dituzten pertsonen aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzea.

Aldi baterako kontratuak aldizkako kontratu finko bihurtzea.

Aldi baterako kontratua txanda-kontratuaren modalitatea baliatuz bihurtzea.

Vitoria-Gasteizko Udalak nahiz haren enpresa edo erakunde autonomoek esleitutako kontratuak gauzatzeko aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzea.

Era berean, ezingo dira laguntza hauetaz baliatu:

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluko debeku egoeraren batean dauden enpresa edo entitateak.

Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta haiekin loturarik duten edo haien mendeko diren entitateak.

Langile autonomo laguntzaileak, gizarteratze-enpresak, ondare-sozietateak eta finantza-entitateak.

Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak — urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia — 2.1 artikuluan aipatzen dituen lan-harreman bereziak.

Deialdi honetan aurreikusten diren enpresentzako laguntzek Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 Erregelamenduan ezarritako “minimis” araua bete beharko dute, hau da, Europar Batasunaren Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko “minimis” laguntzei aplikatzeari buruzko araua.

3. oinarria. Dirulaguntzak jakinarazteko edo argitaratzeko bidea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webguneko (www.vitoria-gasteiz.org) iragarki-taula digitalean argitaratuko dira. Emandako edo ukatutako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da, enpresa edo entitate eskatzaileak adierazita, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoa ere, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; horretaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

4. oinarria. Onuradun izateko betekizunak

Betekizun hauek betetzen dituzten enpresa edo entitateek jaso ahal izango dituzte deialdi honetako dirulaguntzak, edozein delarik ere haien forma juridikoa:

— Diruz laguntzeko moduko jarduerak garatzea, zuzenean, Vitoria-Gasteizko udalerriko lantoki batean.

— Dirulaguntzen deialdi publikoan parte hartu ahal izateko enpresa edo entitate eskatzaileek bete behar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak, foru aldundiarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak beteta eduki beharko dituzte. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da bete behar hori —dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean—.

– Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik ez jaso izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez jaso izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bateginak – martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia – 3.1 artikuluan jasotako sexu-diskriminazioarengatik edo diskriminazio anizkoitzarengatik gertatutakoak barne, edo Lan Arloko Arau Hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginak – abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia – 46.1.b) eta 46 bis 1.b) artikuluetan aurreikusitako zehapen osagarria jaso izana.

– Ondasun-erkidegoen edo elkarte zibilen kasuan, horietan partaidetza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Nolanahi ere, taldea ordezkatzeko duen pertsona bat izendatu beharko da, zeinak nahikoa ahalmen izango baitu taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epaia baino lehen desegiten bada elkartea, emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da.

– Baldintza horiek betetzen jarraitzea, ebazpena eman arte.

Kontratututakoek betekizun hauek bete beharko dituzte, indarrean dagoen legediak agintzen dituen gain:

– 45 urte edo gehiago izatea aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzen den egunean.

– Aldi baterako kontratua mugagabe bihurtu aurreko egunean Vitoria-Gasteizen erroldatuta egotea. Ofizioz begiratuko da dena delakoak betekizun hori betetzen duen.

5. oinarria. Baliabide ekonomikoak

Deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 600.000,00 eurokoa izango da guztira, Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailaren 2025eko ekitaldirako udal-aurrekontuko 2025/08.23.2411. 4.8967 partidaren kargura (“Enplegu-egonkortasunerako kontrataziorako laguntzak”).

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 58. artikuluan xedatutakoaren haritik, zuzkidura hori handitzerik izango da organo eskudunaren erabakia dela medio, baldin eta udal sail horrek enpresei zuzendurik egiten dituen deialdietakoren batean soberako krediturik badago. Edonola ere, zenbateko gehigarria erabiltzekotan aski kreditu izan beharko da erabilgarri eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan.

6. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateraezintasuna

Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak bateraezinak izango dira kontzeptu, xede edo epe bererako beste administrazio publiko edo entitate publiko nahiz pribatu batzuek dirulaguntza eskatzeko aurkeztu den kontratuarekin lotuta ematen dituzten beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu.

7. oinarria. Indarraldia eta eskabideak aurkezteko epea eta bideak

7.1. Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik jarriko dira indarrean oinarri hauek; aldeztu aurretik laburpen-iragarkia argitaratuko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean.

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2025eko irailaren 15ean bukatuko (biak barne).

Enpresa edo entitate interesdunek eskabidea aurkezten dutelarik, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

7.2. Bide hauek baliatu ahalko dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

– Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>). Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko dira, erregistro elektronikoren bidez. Horretarako, identifikazio-txartel digitala erabili beharko da.

– Aurrez aurre:

– Udalaren bulego teknikoetan (Dublang Margolariaren kalea); ordutegia: 8:30 - 14:00 (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

– Gizarte-etxeen sareko herritarrei laguntzeko bulegoetan (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

Aurrez aurre arreta emateko gunean dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. b artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahalko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

7.3. Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektroniko bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonak tramitazioak iraun bitartean, hartara eskabideak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko beharrezko diren abisua jasotzeko, legeak ezartzen duen moduan jakinarazi beharra gorabehera.

7.4. Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

8. oinarria. Nahitaezko agiriak

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira, nahitaez:

– Eskabidea, lauki guztiak behar bezala beteta, eta zinpeko aitortpena, oinarri hauen I. eranskinean ageri den ereduaren arabera —atal guztiak bete beharko dira, nahitaez—.

– Entitate eskatzailea identifikatu eta egiaztatzeko agiriak:

1. NAN edo AIZ, autonomoen kasuan, edo enpresa edo entitatearen IFZ.

1.- Enpresa eratzeko eskritura, enpresaren estatutuak eta legezko ordezkariaren ahalmenaren egiaztapena. Ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea, baldin eta enpleguaren egonkortasuna sustatzeko 2022ko, 2023ko eta 2024ko laguntza ekonomikoen deialdietan aurkeztu bazen, eta aldaketarik egon ez bada.

2.- Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.

3.- Ofizios konprobatuko da enpresa/entitate eskatzaileak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean dituen, salbu eta horren aurka egiten badu, arrazoiak emanez. Aurka egiten badu, zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzako Diruzaintzarekikoak beteta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

– Kontratututako pertsona egiaztatzeko agiriak:

1.- Laguntza jasoko duen lan-kontratua, bi aldeek sinatuta, Lanbideri kontratazio hori bide telematikoz jakinarazi izanaren egiaztagiriarekin batera.

2.- Laguntzaren xede den afiliatuaren lan-bizitzaren txostena.

3.- Kontratatuaren NANA edo AIZ.

4.- Kontratazioaren urteko soldata gordinaren ziurtagiria, enpresa edo entitate eskatzaileak emana. Urteko soldata-kostuen kalkulua, deialdia honi dagozkionetarako, dirulaguntzaren xede den kontratua duen langilearen soldata gordina izango da, enpresa edo entitatearen kontura diren gizarte-segurantzako kostuak gehituta —kontratua mugagabe bihurtu ondorengo 12 hila-beteetakoa—.

5. Desgaitasun funtzionalaren aitortpena, kasua bada, eskumena duen organo eskudunak emana.

9. oinarria. Eskabidearen akatsak zuzentzea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 20.4 artikulua-ren ildotik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), eskabideak deialdian xedatutako betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzan errekerituko dio organo eskudunak interesdunari. Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, beti ere, ebazpena eman ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

10. oinarria. Esleipen-prozedura

10.1. Prozedura.

Dirulaguntzak emateko elkarren arteko lehiaren prozedura baliatuko da, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Dirulaguntzak emateko alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak, 13. oinarrian ezarritako balioespen-irizpideak aintzat harturik lehentasun-hurrenkera ezartze aldera, eta puntuaziorik handienak lortzen dituzten eskabideei adjudikatuko zaizkie dirulaguntzak.

Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, balioesteko atalean guztira lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko, hurrenkera honen arabera:

1. 60 urtekoak edo nagusiagoak.
2. 59 eta 50 urte bitartekoak.
3. Emakume bat kontratatzea.
4. Lanaldi osoko kontratua.
5. Eskumena duen erakunde ofizialak aitortutako dibertsitate funtzionalaren ehunekorik handiena.
6. Adin handiena.
7. Eskabidea lehenago aurkeztu izana, sarrera-erregistroaren data eta orduaren arabera.

10.2. Instrukzioa eta ebazpena.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Balioespen batzorde tekniko bat eratuko da horretarako, honako kide hauek osatua:

– Lehendakaria: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendaria edo hark ordezeko izendatzen duena.

– Idazkaria: Administrazio Zerbitzuko burua, edo hark ordezeko izendatzen duena.

Enplegu Ataleko burua, edo hark ordezeko izendatzen duena.

Dirulaguntzak emateko orduan edozein zalantza argitu edo edozein erabaki hartzeko eskumena izango du batzorde horrek.

Eskabideak jaso eta izapidetzeko onartu ostean, eta eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, balioespen-batzorde teknikoak txosten arrazoitu bat egingo du, eta bertan zehaztuko egindako balioespenaren emaitza eta horien arteko lehentasuna, deialdi honen 13. oinarrian ezarritako irizpideen arabera Instrukzio-organoak ebazpena eman ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio eman edo ukatuko dira laguntzak, horretarako ahalmena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

ALHAOren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren iragarkiren bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organi-koaren irizpideei jarraituz.

Dirulaguntzak eman edo ukatzeko erabakiak agortu egingo du administrazio-bidea, eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertze-errekurtsioa aurkez daiteke, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsioak aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, berriz, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik.

11. oinarria. Ebazteko epea

Prozeduraren ebazpena eman eta argitaratzeko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunaren biharamunetik.

Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 24.5 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eskabideak ezetsizat jo ahalko dituzte interesdunek, administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada.

12. oinarria. Enpresa edo entitate onuradunen betebeharrak

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan xedatutakoa gorabehera, betebeharrak hauek izango dituzte enpresa edo entitate onuradunek:

Laguntza emateko arrazoi izan den jarduera burutzea eta burutu dela egiaztatzea.

Dirulaguntzaren xede diren kontratuekin jarduten duten langileei jakinarazi beharko diete hala dela.

Vitoria-Gasteizko Udalaren egiaztatze-ekintzen eta bertako kontu-hartzaile nagusiaren finantza-kontrolerako ekintzen mende jartzea, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraztea.

Zerga-betebeharrak bete eta Gizarte Segurantzari nahiz Vitoria-Gasteizko Udalari ordaindu beharrekoak ordaindu direla egiaztatzea. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari beharrezkotzat jotzen duen informazio eta agiri osagarri oro ematea, deialdi honetan jasotzen dituzten dirulaguntzak ulertu eta ebaluatzeko.

Udal dirulaguntza honetara aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero, organo emaileari jakinaraztea.

Sortutako kontratu mugagabea gutxienez 12 hilabetez mantentzea, eta aldi horretan zerga-eta lan-betebeharrak betetzea, baita Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak ere. Betebeharrak horiek betetzen ez badira, itzuli egin beharko da emandako dirulaguntza, dagozkion interesekin.

Dirulaguntza noren kontratuagatik ematen den, pertsona horrek baja hartzen badu enpresa edo entitatean aldi horretan, betebeharrak berak betetzen dituen ezaugarri bereko beste pertsona batekin ordezkatu beharko da, eta baldintza berberetan edo hobeetan, hilabeteko epean, baja-egunetik, eta hala jakinarazi beharko zaio Vitoria-Gasteizko Udalari, gehienez ere 15 eguneko epean, kontratu berriaren datatik. Ordezkapen bakarra egin ahalko da.

Ordezkapen horretan ezarritakoa betetzen ez bada, itzuli egin beharko da emandako dirulaguntza, dagozkion interesekin.

Dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik gertatzen bada baja, bertan behera geratuko da aurkeztutako eskabidea egiteko eskubidea, eta, ebazpena eman aurretik egoera hori udalari jakinarazi ez bazaio, eta dirulaguntza ordaindu bada, emandako dirulaguntza itzuli beharko da, dagozkion interesekin.

Kontratuagatik dirulaguntza eman den pertsonaren batek baja hartzen badu enpresa edo entitatean, heriotza, ezintasun iraunkorra, erretiroa, dimisioa edo borondatezko baja nahiz kaleratze zigorra direla kausa, eta dirulaguntza emateko zio izan diren betebeharrak betetzen dituen beste pertsona bat kontratatzen ez bada hilabeteko epean, Gizarte Segurantzaren baja ematen zaion egunetik hasi eta dirulaguntza zein kontraturengatik eman zen hura mantendu behar zeneko aldia bukatu arteko tarteari dagozkion dirulaguntzaren zati proportzionala itzuli beharko da.

Jasotako fondo publikoak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan eta dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan adierazten diren kasuetan, deialdi honen 18. oinarrian ezarritakoaren arabera.

13. oinarria. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauen arabera balioetsiko dira aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzen direlarik dirulaguntza deialdira aurkezten diren eskabideak, puntuaziorik handienetik txikienera arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko:

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	
Kontratututako pertsonen ezaugarriak	
55 urteko edo gehiagoko pertsonak (aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtzen denean)	50 puntu
Emakumea	30 puntu
Dibertsitate funtzionala duten pertsonak	10 puntu
Lanaldi-mota	
Osoa	30 puntu
Partziala (% 75ekoa edo hortik gorakoa)	10 puntu
Gehieneko puntuazioa	120 puntu

Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 20.1 m) artikulua betez, genero-ikuspegia txertatzeko ekintzak sartu dira balioespen-irizpideen artean, eta baremo osoaren ehuneko 25eko balioespena dute.

14. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzea

14.1. Urteko soldata-kostuen (urteko soldata gordina eta enpresaren kargurako Gizarte Segurantzako kostuak) ehuneko 50eko laguntza aldi baterako kontratua bihurtzeko; lanaldi osorako kontratuak eginez gero, gehieneko muga 10.000,00 euro izango da.

Lanaldi partzialeko kontratuetarako laguntzak proportzionalak izango dira. Dirulaguntza jaso lezakeen gutxienerako lanaldia ehuneko 50ekoa izango da.

14.2. Kontratua bihurtzen den egunean 60 urte edo gehiago dituzten pertsonen kontratuek 1.000,00 euro gehiago jasoko dute dirulaguntza gisa.

14.3. Urteko soldata-kostutzat zenbatuko dira ordainsari gordinari dagozkion gastua (lanaldiaren arabera) eta enpresaren kargurako Gizarte Segurantzari dagozkion kostuak. Enpresak edo entitateak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioaren artean, eta gero justifikatu egin beharko du. Baldin eta, gerora,

eskabidean adierazitakoa baino zenbateko txikiagoa justifikatzen badu enpresa edo entitateak, eta horrek laguntzaren kalkulua aldatzen duelarik ateratzen den kopurua benetan diruz lagundutakoa baino txikiagoa bada, jasotako dirulaguntzaren dena delako zati proportzionala itzuli beharko du.

Urteko soldata-kostuen kalkulua, deialdia honi dagozkionetarako, dirulaguntzaren xede den kontratua duen langilearen soldata gordina izango da, enpresa edo entitatearen kontura diren gizarte-segurantzako kostuak gehituta —kontratua mugagabe bihurtu ondorengo 12 hila-beteetakoa—.

15. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea

Ordainketa bakarrean ordainduko dira laguntzak, aurrerakin gisa, diruz lagundutako enpleguei eutsi zaiela egiaztatu ondoren, horiek ematea ekarri duten baldintzak egiaztatzeko ezar litezkeen kontrolak gorabehera. Diruz lagundutako aldia bukatu ondoren, dirulaguntzaren xedea bete dela justifikatu beharko du enpresa edo entitateak, ematean finkatutako moduan bete ere.

16. oinarria. Justifikatzeko epea eta modua

16.1. Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorrak 31.5 artikuluan xedatzen duenez, ezarritako justifikazio-epea igaro eta administrazio-organo eskudunari aurkeztu ez bazaio, organo horrek onuradunari eskatuko dio hamabost egun baliouduneko epe luzaezinean aurkez dezala. Ezarritako epe horretan justifikazioa aurkezten ez bada, itzultzeko eskatuko da eta, hala badagokio, dagokion dossier zigortzailea abiaraziko. Justifikazioa epe horretan aurkezteak ez du onuraduna salbuesten ezar lekizkiokeen zehapenetatik.

16.2. Justifikatzeko modua.

Onuradunak laguntza aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzen denetik 12 hilabetera justifikatu behar du dirulaguntza, dokumentazio hau aurkeztuta:

1. Justifikaziorako kontu-arruntaren inprimakia (eranskineko eredua) Atal hauek bakarrik bete:

- Adierazpen-egilearen datuak eta dirulaguntza-ildoak (1. orria).
- 3. atala: proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea (5. orria).
- 4. atala: langile-gastuak eta gizarte-segurantzakoak, hilabeteka banakatuta (6. orria).
- Zinpeko aitortpena + Enpresaren sinadura eta zigilua (8. orria).

2. Diruz lagundutako 12 hilabeteetako nominak eta ordainketa-egiaztagiriak (banketxeak zigilatutako agiria edo banku-ordainagiria) eta RLC agiria (kotizazioen likidazioaren ordainagiria).

3. Baimenik eman ezean enpresa/erakunde eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituen ofizios egiaztatzeko, aurkeztu egin beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzarekin dituenak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

17. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Vitoria-Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahalko ditu, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote pertsona onuradunek. Horretaz gain, Udaleko Kontu Hartzailtza Nagusiaren eskumena da Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzen finantza-kontrola egitea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren hamalaugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

18. oinarria. Dirulaguntza galtzea, laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Oinarri hauetan jasotako kasuez gain, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) adierazten diren kasuetan itzuli beharko dira jasotako zenbatekoak, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, hura baino lehenagokoa bada.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren II. kapituluaren eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da itzulketa-prozedurari, kausei, preskripzioari eta itzultzeko betebeharra dutenei dagokienez.

19. oinarria. Berdintasun-klausulak

Entitate onuradunak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, errespetatu egin beharko ditu Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko otsailaren 15eko 4/2024 Legea, 2024ko martxoaren 1etik indarrean dagoena, eta Yogyakarta printzipioak (Giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak).

Horrela, giza eskubideen alorreko legedia eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, pertsona onuradunaren proiektuak bat egingo du Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatzen dituen genero berdintasuneko politikekin. Hori dela eta, konpromiso hauek hartzen ditu:

– Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzeko konpromisoa, herritarren egoera eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartuz; generoaren, klase sozialaren, jatorri kulturalaren, administrazio-egoeraren, adinaren edo dibertsitate funtzionalaren arabera desberdintasunak agerian uztera edo arintzera bideratutako helburu eta jarduketa espezifikoak txertatuz, eta ekintza positiboak aurreikusiz.

– Generoa kontuan hartzerakoan, pertsona guztiak emakume edo gizon heterosexualak direla ziurtatuz ez jotzeko konpromisoa —zisheteronormatibitatea—, ezta familia guztiak nuklearrak direla ere. Sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen tratamenduan, patologizazio, biktimismo eta pinkwashing orori ihes egiteko konpromisoa.

– Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sexua/generoa —emakumea/gizona/ez-binarioa edo entitateak egokituz jotzen duen beste forma bat— aldagaia sistematikoki txertatzeko konpromisoa.

– Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eta inklusiboa egiteko konpromisoa, pertsonak zein gizataldeak modu bidezko batean irudikatuz, eta generoaren edo egiturazko beste edozein desberdintasun-iturriaren arabera rol eta estereotipoak sendotu gabe.

20. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 Erregelamendua, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren,

Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideak baliatu nahi dituenak —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko du.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko apirilaren 23an

Administrazio Zerbitzuko burua

JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ

I. eranskina: Eskabide-agiria eta zinpeko aitortpena

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/21/47/102147.pdf>.